

**1. jarduera multzoa: zer da erreseina bat? Nork, norentzat eta zertarako idazten dira? Non argitaratzen dira?**

Helburuak:

- Generoaren ezaugarri nagusiak ezagutzea: edukiak eta ekoizpenaren egoera komunikatiboa. Erreseina izeneko testu akademiko honen oinarrizko ezagutza bat lortzea, hain zuzen, zein izan ohi diren erreseinen edukiak eta zein izan ohi den erreseinen ekoizpenerako egoera komunikatiboa (helburua, igorlea, hartzailea, leku soziala...).
- Antzeko generoekin dituen antzekotasun eta ezberdintasunez jabetzea: literatur liburuen kritika eta diskoen kritika.

**1. ariketa: zertaz idazten da erreseina batean? Zein izan ohi dira erreseina baten edukiak?**

- Irakurri Nekane Goikoetxearen eta Naiara Berasategiren testuak eta erantzun honako galderak:

1. Zeri buruzkoa da Goikoetxearen testua? Zein da Goikoetxearen testuaren gai nagusia? Hiruzpalau esalditan aipa itzazu testuaren eduki nagusiak eta helburua.

2. Zeri buruzkoa da Berasategiren testua? Zein da Berasategiren testuaren gai nagusia? Hiruzpalau esalditan aipa itzazu testuaren eduki nagusiak eta helburua.

3. Zure ustez, Goikoetxeak eta Berasategik egiten dutena zer da: laburpen bat? Iritzi emate bat?

|  |
|--|
| 2. ariketa: zein da erreseina baten ekoizpenaren egoera komunikatiboa? |
|--|

- Hona hemen hiru testu. Hiruren arteko konparaketa egin ezazu, beheko galderen bidez:

1. testua: Eli Urdangarinen “Gorde nazazu lurpean”, *Maxixatzen* aldizkaria (2002ko apirila). <http://kriticak.armiarma.com/?p=513>

2. testua: Ion Etxebarriaren “Esan Ozenki Records 1991-2011. Askoren artean”, *entzun.com* (2012ko urtarrila). <http://www.entzun.com/kriticak/diskoak/esan-ozenki-records-19912011-2>

3. testua: Nekane Goikoetxearen “Towards multilingual education. Basque educational research from an international perspective”, *Uztaro*, 76. zk. (2011).

1. Zein aldizkari edo web-orritan argitaratu dira hiru testuak? Saia zaitetz bakoitzari buruzko informazioa biltzen: zein diren bakoitzaren helburu nagusiak, zeini zuzendua egon ohi den eta baita ere nork idatzi ohi duen bertan. Informazioa aurkitzea zaila egiten bazaizu, saiatu hipotesiak egiten.

2. Ezagutzen dituzu hiru testuen idazleak? Zer egiten dute lanbidez? Zure ustez, irakasle gisa idazten dute? Edo agian ikertzaile gisa? Musikari gisa? Bestela galdetuta: zein da idazle bakoitzaren “ikuspuntua” / “rola” testuaren idazle gisa?

3. Norentzat daude idatzita? Zein publiko motari zuzentzen zaizkie 3 testuak?

4. Zein da testu bakoitzaren helburua?

5. Bereizi ezazu Goikoetxearen testua beste biengandik, orain arte aipatutako puntuetan.

## **2. jarduera multzoa: erreseinaren planifikazioa: atalak identifikatzea**

Helburua:

- Erreseinaren atalak zein diren ikastea eta identifikatzen jakitea.

### **1. ariketa: zein dira erreseinaren atalak?**

- Saia zaitetz Goikoetxea eta Berasategiren erreseinetan atalak bereizten eta bakoitza izendatzen. Zein da atal bakoitzaren zeregin nagusia erreseinaren barruan?

- Atal berberak topatu dituzu bi erreseinetan? Atalei dagokienez, zein dira bi testuen arteko antzekotasunak? Eta zein diferentziak?

- Irakurri Belen Urangaren erreseina eta bereizi atalak. Zeinen antza gehiago du Urangaren erreseinak, Goikotxearen testuarena ala Barreñarena?

## **3. jarduera multzoa: erreseinaren planifikazioa: fitxa bibliografikoa**

Helburua:

- Fitxa bibliografikoa zer den, zertarako balio duen eta nola idazten den ikastea.

### **1. ariketa: zer da fitxa bibliografikoa? Ze informazio ematen du? Nola antolatzen da informazio hori guztia?**

- Goikoetxearen, Berasategiren eta Urangaren erreseinetan agertzen diren fitxa bibliografikoak aztertu, eta erantzun galdera hauei:

1. Zertarako jartzen dira fitxa bibliografikoak erreseinetan? Zein funtzio betetzen ote dute?

2. Zer informazio jartzen da fitxa bibliografikoetan? Zertarako jartzen ote da informazio hori guztia?

3. Nola antolatzen ote da fitxa bibliografikoko informazioa? Adibidez, zein hurrenkeratan ematen da informazio hori guztia?

2. ariketa: nola bereizi liburu, liburu kapitulu eta artikuluen fitxa bibliografikoak?

- Identifikatu ondorengo erreferentzia bibliografikoen artean liburu, liburu kapitulu eta artikuluei dagozkienak, eta adierazi zertan oinarritu zaren:

Avrutin, S. (2006), "Weak Syntax". In Y. Grodzinsky & K. Amunts (arg.), *Broca's region*. New York: Oxford University Press. 49-62.

Bastiaanse, R. & Van Zonneveld, R. (1998), "On the relation between verb inflection and verb position in Dutch agrammatic patients", *Brain and Language*, 64, 165-181. DOI:10.1006/brln.1998.1972.

Bastiaanse, R., Koekoek, J. & Van Zonneveld, R. (2003), "Object scrambling in Dutch Broca's aphasia", *Brain and Language*, 86, 287-299. DOI:10.1016/S0093-934X(02)00545-X.

Grodzinsky, Y. (1990), *Theoretical perspectives on language deficits*. Massachusetts: MIT Press. ISBN 0-262-071123-1.

Menn, L. & Obler, L. K. (1990), *Agrammatic Aphasia: a Cross-Language Narrative Sourcebook*. Philadelphia: John Benjamins. ISBN 90-27220-45-X.

3. ariketa: nola idazten dira fitxa bibliografikoak?

- Antola itzazu Goikoetxearen, Berasategiren eta Urangaren erreseinen oinarri diren liburuen bibliografia fitxak eta ondoko artikulua/kapitulu/liburu hauena eskolan ikusitako ereduari jarraituz.

| Egilea(k)   | Izenburua   | (beste egilea(k))                   | (2. izenburua)               | Urtea | Argitaratze hiria/aldizkaria | Argitaletxea                       | Orriak  |
|---|---|-------------------------------------|------------------------------|-------|------------------------------|------------------------------------|---------|
| Beatriz Fernández, Jon Ortiz de Urbina eta Josu Landa | Komunztadurarik gabeko datiboen gakoez                    | Ricardo Gómez eta Joseba A. Lakarra | Beñat Oihartzabali gorazarre | 2010  | Bilbo & Donostia             | UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia | 357-380 |
| Beatriz Fernández eta Jon Ortiz de Urbina             | Datiboa hiztegian   |                                     |                              | 2010  | Bilbo                        | UPV/EHU                            |         |
| Larraitz Zubeldia                                     | Ebidentzialitatearen eta modalitatearen arteko harremanaz |                                     |                              | 2008  | Gogoa 8 (2)                  |                                    | 159-175 |

- Zuzen itzazu 1. gaiko azken diapositiban ageri diren erreferentzia bibliografikoak eskolan ikusitako ereduari jarraituz.

#### **4. jarduera multzoa: ahotsak balorazioak, iritziak, eta azken gomendioa**

Helburuak:

- Jatorrizko testuaren laburpena egiterakoan lekuz kanpo dauden balorazio eta iritziak saihesten ikastea eta jatorrizko egilearen ahotsa erreseinara ekartzen ikastea.
- Erreseinaren amaieran balorazioa leuntzen ikastea.

1. ariketa: Bila itzazu Berasategi eta Goikoetxearen testuetan balorazio-iritziari dagozkion pasarteak eta adieraz ezazu:

- Zer-nolako balorazioak egiten dituzten.

- Zein hizkuntza-baliabide darabiltzaten iritzi-balorazioetan.

2. ariketa: edukiaren laburpenean nola saihestu lekuz kanpoko balorazio eta iritziak? Nola ekarri erreseinara jatorrizko egilearen ahotsa?

- Hona hemen hainbat erreseinatako edukiaren laburpenetatik ateratako adibideak. Zer iruditzen zaizu egilearen ahotsa agertzea iritzia emanaz eta balorazioak eginez? Adibide horietan nola ordeztuko zenuke ahots hori, jatorrizko testuaren egilearena jarritz?

*1. Iruditzen zait eskolan hizkuntza gutxituek izan duten tratamendua oso kaltegarria izan dela hizkuntza horien garapenarentzat.*

*2. Nire ustez, eskolan hizkuntza gutxituek izan duten tratamendua oso kaltegarria izan da hizkuntza horien garapenarentzat.*

*3. Iruditzen zaigu eskolan hizkuntza gutxituek izan duten tratamendua oso kaltegarria izan dela hizkuntza horien garapenarentzat.*

3. ariketa: nola leundu norbere iritzia erreseinaren amaieran balorazioa egiterakoan?

- Hona hemen hainbat erreseinaren azken ataleko adibideak. Leun itzazu balorazio edo iritzi hauek (kontuan hartu erantzun zuzenak bat baino gehiago izan daitezkeela):

1. *Ez dut testua ulertu... kimikaz ez dakidalako ezer.*

2. *Testua oso zaila eta korapilatsua iruditu zait...*

3. *Testua irakurtzean burura etorri zait/gogoratu naiz eskolan landu genituen hizkuntza gutxituen aurreiritziez.*

4. *Ez dut zalantza-izpirik euskararen etorkizuna jokoan dela*

**5. jarduera multzoa: erreseina idaztea (AZAROAREN 18ko eskolan egingo da)**

Helburua:

- Artikulu zientifiko baten erreseina idaztea.

1. ariketa: EHU eta UEU pentsatzen ari dira hitzarmen bat egitea lankidetzaren areagotzeko. Hitzarmenaren helburu nagusia da EHUko ikasleek *Uztaro* aldizkarian ekarpenak egiteko tarte bat izatea. Ekimen horrekin lortu nahi dute batetik, ikasleak esparru akademikoan poliki-poliki txertatzea eta, bestetik, *Uztaro* aldizkariaren erabiltzaile-sarea handitzea. Hain zuzen, ikasleen ekarpenen artean gradu amaierako lanak argitaratzeko aukera proposatuko du EHUK, baina horrekin batera lehen mailakoek ere ekarpenik egiterik duten pentsatzen ari dira.

Zuen zeregina, hortaz, EHU prestatzen ari den hitzarmen proposamen horretan aurkezteko moduko erreseina bat idaztea izango da. EHUko beste campusetako fakultateetan ere ikasleen erreseinak jasoko dituzte ikusteko horrelakoek ere lekua eduki lezaketan *Uztaro* aldizkarian. Hauxe da zuentzako zeregin zehatza: egin ezazue Iñaki Martinez de Lunak idatzitako artikularen erreseina, gogoan izanda erreseinaren helburuak eta testuinguru komunikatiboa zein diren.